

Aritz Galarraga

HUMANITATEAREN UNE GORENAK



ALBERDANIA



Aritz Galarraga
HUMANITATEAREN
UNE GORENAK



ALBERDANIA



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

*Bitartean ibillico dira becatutic becatura amilduaz;
oraiñ pensamentu batean, guero seago itz loyak gozotoro aditzean:
oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzan,
edo dantza ondoan alberdanian.*

J.B. AGIRRE

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du liburu honek.

r. argitalpena: 2022ko urria.

© 2022, Aritz Galarraga

© Argitaraldi honena: 2022, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, behe C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

Azaleko irudia: Maore Sagarzazu

Inprimatzailea: Ulzama (Uharte, Nafarroa)

ISBN papera: 978-84-9868-770-5

ISBN digitala: 978-84-9868-771-2

Lege gordailua: D. 1129/2022



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

ARITZ GALARRAGA

EDIZIOA GORKA BEREZIARTUA

ALBERDANIA
saiakera

AURKIBIDEA

HITZAURREA

2019-2020

UDA BAT
100 METRO WALLAPOPEN
EZ ZAIT JENDEA GUSTATZEN
ITSAS MENDI
BIRIATU, LAPURDI
35 URTEETATIK AURRERA
LAXE VS. VALLÍN
GIZABEREAZ
IRAULTZA MODERNOAK
ZIENTZIARI
HAUTESKUNDEAK
LURRIKARAK
HARITZA
FLEMING
BIDAIATZEAZ
ZALDIA
IGERILARIEN GORPUTZAK
LAGUN
H.
HIZKUNTZA SUERTE BAT
HURA BAITZEN
ERROMATAR
PRINTZESA HIRIA
IZURRIA
ISILTASUNAZ
BALKOIAK
LASAIGABETASUNA
PAIDOKRAZIA
DANUBIO
LASTERKA
NAHIAGO EZ
ZAHARRAK
NORMALTASUN BERRIA
AGUR UNIBERTSITATEARI
BIBLIOTEKA BAT
TABUAK
PRAGA
15 MINUTU
BARNE KOLONIALISMOA
BOZKALEKU BATEN AGORTZE SAIKERA
HIZKI BATEN BERE BIZIKOTASUNA

CBA

2020-2021

INOIZKO UDARIK EDERRENA
BRONTË
40 URTEAK BAINO LEHEN
LEFEBVRE-ENEA
VITA ACTIVA
GELA BAT NORBERARENA
BIZIMODU BIKOITZA
DURAS GARA
MATRIMONIOAREN ALDE
ESPAINOL
FEDE HANDIAGOA
BARATZE BAT
KANDIDO
PASEOA
ODA BAT MASKARARI
LANAK EGINGO GAITU LIBRE
ALFERRIKAKOAREN KONKISTA
BIZITZA DESKRIBATZEN DU
LITERATURA, ZERTARAKO?
MAISU-MAISTRAK
BIGARREN MAILAKO ERREPIDEAK
SALÍSTARRAK
AKITANIERA
ORAINA BESTERIK
EISNERIN
FAMILIA BAT BRUSELAN
NEKEAZ
BESTE ESPAINIA BAT
BIDASOAN BEHERA
DOLUA
BIZILAGUN ONAK
BEGIAK
HILERRI TURISMOA
GERO ARTE
KOMENTARIORIK GABE
MASKULINITATE TOXIKOA
OROIMENTSUA
AI, ARDOA
OIASO FE
DENA EZ DA IZANGO LARRUA JOTZEA
BIDAIARI ETXEZALEA
LIBURUEN SUIZIDIOA

2021-2022

MUNDUAN PARTE HARTU

ZENBAT ARGI
HIL AURRETIK
DIRUA
LORIK EZ
SIESTA
EGUNEROKOA
GAUZA INUTILAK
CICINDELA JUENGERI
MUGA
HIZKUNTZA LITERARIOA
C'EST TRÈS JOLI
ALDE EGITEKO
AHANZTURA
GARENNEKO BIDEA
ADAN ETA COVID-19A
VIR BONUS DICENDI PERITUS
SAFORENAK
MAITASUNAREN GORAZARRE
MUNDU ZAHARRA BERRITZEA
KAFETEGIA
EZ DUT MAITE GERRA
VALÉRYREN EUROPA
ALDERANTZIZ IRAKURRI
ITSASO GUZTIAK
BEGIAREN HIRIA
FAXISMO LILURAGARRIA
EXISTITZEN DIRELA
PROUST GALDETEGIA
LITERATURA FEMENINOA?
EHIZTARI-BILTZAILEAK
BASORATZEA
MAITE ZAITUT, HIRI DOILORRA!
BIZITZAREN LABURTASUNAZ
BETIEREKO ITZULERA
KONPLIKATUA DA
KAIN-KONPLEXUA
SATORRAREN LANA
HARRIDURA-MARKAK
ZERENGANDIK IHES
ZIZERONENA

BIBLIOGRAFIA

AURKIBIDE ANALITIKOA



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

HITZAURREA

Planak batzuetan aldatu egiten dira, eta aurretik pentsatutakoak baino leku interesgarriagoetara eramaten gaituzte. Aritz Galarraga 2019an hasi zen *Argia*-n astero «Humanitatearen une gorenak» izeneko artikulua idazten. Autorearen marka nabarmena zeukan zutabe bat aldizkariko aktualitate bizienero orrialdeen erdian: oasi txiki bat, paperetan egunerokotasun gordinaz gain bestelako arnasa ere bilatzen duten irakurleentzat.

Baina astez aste eta begirada luzexeagoarekin sail hori irakurri dugunok sumatu dugu testu horiek bihurtzen joan direla bestelako zerbait ere. Kosta egiten zait sailkatzea metamorfosi horren emaitza: dietario moduko bat bilakatu ziren puntu batetik aurrera? Irakurle porrokatu baten egunerokoa? Liburutegi unibertsaleko apalen artean ontsa nabigatzeko kaiera? Beharbada saiakera literario gisa definitzea izango da irtenbide eraginkorrena, genero aski zabala baita Galarragak idatzitakoaren ugaritasuna bere osoan besarkatzeko. Eta gainera, Michel de Montaigneren *Entseiuak* hainbestetan aipatzen duen idazle baten kasuan, tradizio horrekiko lotura nahiko agerikoa da.

Edonola ere, behin onartuta testuok bazirela zutabe arruntez haragoko zerbait, beste premia batzuk sortu ziren. Lehenbizikoa: zazpi egunetik behin iristen zitzaizkigun atal horiek elkartzea, uztartzea, doitzea, irakurleek jaso dezaten bihurtu den hori bezala; liburu bat, alegia. Bigarrena: entrega-orduen presiopean idatzitako hitz bakoitzari, behin horrelako estutasunetatik askatuta, pisu eta bolumen ahalik eta zehatzena ematen saiatzea zizel-kolpe batzuen bitartez. Eta hirugarrena: hitzaurre hau idaztea, Galarraga oraindik irakurri ez dutenek gutxi gorabeherako ideia bat osa dezaten liburu honetako orrialdeetan aurkituko dutenaz.

Eta aurkituko dute, beste ezer baino lehen, irakurle oso eskuzabal bat, leitzen duenarekin bezainbeste gozaten duena irakurketa horietaz besteekin hitz egiten. Liburuak irakurtzeko gogoia ematen duen liburua baituzu hau, eramango zaituena, kasik oharkabean, Mitteleuropa zeharkatzera titulua inspiratu duen Stefan Zweigen lanetatik hasita Agota

Kristofenetaraino; Elias Canettiren mihi askeaz bezainbeste arituko zaizuna Hannah Arendten mundutik apartatzeko beharraz; Marie Darrieussecq, Annie Ernaux, Marguerite Duras edo Antoine Compagnonen lanak zeharkatuz erakutsiko dizuna egileak nolako kariñoa dion frantsesez idatzitako literaturari; baita Mediterraneoari ere, Saforen garaikotik Rafael Chirbesek deskribatutakoraino.

Material horiekin osatuta egon arren, *Humanitatearen une gorenak* edonork irakurtzeko moduko lana da, literatura jasoena orrialde hauetan gurutzatzen delako pertsona arruntenaren eguneroko bizipenekin, arazoekin eta galderekin. Bizi dugun garaia ahaztu gabe: 2020ko konfinamendua, 2022ko gerra, tartean izan diren hauteskundeak – badakizue, gerra egiteko beste modu hori–... XXI. mendeko bigarren hamarkadaraino iritsi denari ezagunak egingo zaizkio kontu hauetako batzuk, dudarik gabe. Baina literaturan, jakina denez, *zer* bezain inportantea da –inportanteagoa ez bada– *nola*; eta alde horretatik, Galarragak darabilen estiloa, liburu hau hain berezi egiten duena, urrun dago ia dena inbaditzen ari den zaratatik eta histerismotik.

Kuxidade honi lasaitasun pixka batekin begiratzen dio idazleak. Kafetegi batetik, tabernako barratik baino gehiago. Eta hain berezkoa duen ironiari uko egin gabe, eskaini digu humanitateari –edo haren zati bati behintzat– begiratzeko modu bat, partikularra, bere-berea, guztia nola den esaten dizun maisuaren begiradaren aldean hain diferentea; eta, aldi berean, dagoentxo hau bere horretan irensten duten legioetatik ere desertatzen duena. Ez maisu, ez morroi beraz: Étienne de La Boétiek bi jarrera horien arteko tarte estuan ikusten zuen libertaterako bidea. Liburu hau lagun ona duzu xenda horretatik ibiltzeko.

GORKA BEREZIARTUA

2019-2020

UDA BAT

Frantzia aldean bada, nola esan, gertakizun bat, lehenik dena irratsaio, hartzeko gero liburu forma. *Un été avec* izena du, orokorki, eta urtero eskaintzen diote pertsonalitate bati (orain arteko guztiak izan dira gizonezko, puntu negatiboa). Espainia aldean garai batean uda Ana Obregónen hondartzako irudiekin hasten zen bezala, nire uda partikularra ez da hasten urteko *Un été avec* liburua erosten dudan arte. Aurtengo uda pasa dut, modu horretan, Paul Valéryrekin –«*Je hume ici ma future fumée, / Et le ciel chante à l'âme consumée / Le changement des rives en rumeur*»–. Momentuz, ordea, nire udarik maiteena jarraitzen du izaten Montaignerekin pasa nuen hura. Besteak beste, nire kontzientziari uzten diolako atzeratzen haren entseiu osoen irakurketa.

Bestela, halako gauzengatik ez balitz, uda ez baitut bereziki atsegin. Are uda bukatzeko desiatzen egoten naiz maiz. Ez hainbeste uda urtaro gisa, nork ez du eskertzen eguzki pixka bat azalean, itsasoko brisa pixka bat aurpegian, izozki pixka bat alkandora estreinatu berrian. Baina bai ofiziala, abuztua, norabait joan behar, zerbait egin behar, guapo egon behar horrekin (gertatzen zaigun guztia merezi dugu, eta gehiago). Sakonago jarrita, pentsatu nahi dut hurrengo uda noiz iritsiko den desiatzen hasteko desio dudala uda hau bukatzea. Gauza jakina baita desioa beti errealitatea baino askoz ere gauza biziagoa dela.

Tarteka sorpresaren bat: hasten duzu uda, gogo handirik gabe, nagi ez gutxirekin, uda bat gehiago balitz bezala. Eta, bizitza zer den, bukatzen duzu lerrootan, testuok idazten, Santi Leoné maitearen hutsunea bete nahian (eta noski bete ezinean). Denbora puska bat pasako dugu elkarrekin hartara (nik uste azkenerako kariñoa hartuko diogula elkarri). Denbora puska bat, humanitatearen une gorenekin.

Kaixo, Aritz izena dut, eta Wallapop aplikazioaren erabiltzaile nauzue. Tira, ez agian terapia hartu behar izateraino, baina maiz samar erabiltzen dudala aitor dezaket. Adikzio bat baitut: liburuzalea naiz. Liburutegiak maite ditut, noski. Liburuak erosteak igotzen dit glukosa, ordea. Egiten dut sarri liburu-dendetan –VIP txartela eman zidaten auzokoan–. Badira, aldiz, eskuratzen zail diren liburuak. Eta, zer nahi duzue esatea, sarean zehar aurki daitezkeen atarien erraztasuna alboratuta, nahiago izaten dut Wallapop bezalako aplikazio batek eskaintzen didan aukera, ez esateagatik abentura.

Modu horretan eskuratu baitut ez bat ez bi harribitxi: deskatalogatuta zegoen ale aurkiezinen bat, saltzaile espezializatuek bost aldiz garestiago saltzen zuten edizioen bat, ia berria izan arren dendetako prezioaren laurdenean oparitzen zuten nobedaderen bat. Eta badakit sekretu hau konfesatuta orain denok ero moduan Wallapopen bilatzen hasteko arriskua dagoela. Baina errealista izanik, nori interesatzen zaio negozio klase hau?

Aplikaziotik eskuratu dudana azken liburua izan da Ramon Saizarbitoriaren *100 metro*, lehen edizio bat, bi euro ziztrinean. Kontatuko dizuet nola. Kontaktua egin dut saltzailearekin, Jose izen faltsua erabilia. Ez nau harritu trukea egiteko aukeratu duen lekuak, Donostiako Konstituzio plaza. Gehiago orduak, goizeko zortzietan. Hantxe nago, puntual. Halako batean, atzean pauso hots lehorrak. Badaezpada, Aiuntamentua eskuin aldera utziz, Zamudioren terrazarantz zuzentzen ditut pausoak. «*Para o te aso, cabrón*». Nire susmoak konfirmatzen dira metro pare bat atzetik tipo bat korrika ikusten dudanean. Orduan, hots berri bat dator soinuen ekilibrioa haustera. Sabelean jasotzen dut espero nuen tiroa. Badakit hilda nagoela. Sei segundo. Denbora eman dit saltzailea ebaluatzeko. Bost izarrekin, noski.

EZ ZAIT JENDEA GUSTATZEN

Horrela, oro har. Kolektibo gisa. Salbuespenekin, noski. Badira jasangarri zaizkidan gizabanakoak, are maite ditudan gutxi batzuk ere. Izango da agian nahasmenduren bat. Kontua da nahiago izaten dudala etxean geratu, adibidez sofan, kanpoalde gordinera atera baino. Batzuetan, baiki,